

BALOREZKO PROPOSAMENAK:

Gure produktu berri honek, hainbat balio eduki ditzake gizartean, horietako batzuk izan daitezke: Robota profesionalki prestatuta dago gaixotasun horretan adituak diren mediku eta pertsonekin.

Lehenik, Alzheimerra duten pertsonentzako zuzendua dagoela esan beharra daukagu, nahiz eta beraien familientzako ere oso lagungarria izan. Produktu berri hau, nobedadetak har dezakegu, ez dugulako horrelako produkturik inon aurkitu. Badakigu, gaixotasun honentzako laguntzak ezinbestekoak direla eta hainbat osasun zentroetan aurki daitezkeela, baina, horrelako laguntzek beste pertsona bat inplikatzeko dute eta objektu honi esker arazo hori konpon dezakegu. Bigarrenik, prestazioak izango genituzke pertsonen ahalik eta laguntza gehien eskaintzeko.

- Gure robota profesionalki prestatuta dago gaixotasun horretan adituak diren medikuek eta pertsonen.

Alzheimerrak hiru fase ditu; horregatik, produktuaren erabiltzailea zein fasetan dagoen kontuan hartuta egiten ditugu gure robotak. Gure produktuaren helburua da gaixotasun hori duten pertsonak independenteagoak izatea eta gaixotasunak aurrera egin ez dezan laguntzarik handiena eskaintzea. Horrek ez du esan nahi robota duen pertsonak ez duenik senideren edo zaintzailereren baten laguntzarik behar. Horregatik, komeni da noizean behin gaixoa gainbegiratzea.

- Beste alde batetik, familian ere eragin handia izan dezake. Horrelako gaixotasuna duen pertsona batekin bizitzeko, oso arrunta da familiako kide batek zaintzea edota beste pertsona bat kontratatzea. Honek, zaildu egiten du egunerokotasuna, baina, gure robotarekin, errazagoa izango litzateke, gaixoa independenteagoa izan daitekeelako.
- Azkenik, informatikan eta teknologian jarduten duten beste enpresa batzuei ere on egin diezaike. Gure robota egiteko esaten badiegu, beraien enpresaren izena ezagunagoa izango da eta ezagutzera emango da eta horrela, jende gehiagok ezagutuko du. Baita ere, robotak egitean, dirua aterako dute.

Hirugarrenik, lehen esan dugun bezala, pertsonalizatua izango da, hau da, Alzheimerra edo antzerako arazoak dituzten pertsonentzako zuzendua izango da, baina, edozein familia horrelako robot bat nahi izango balu, eskuragarri izango luke nahiz eta horrelako gaixotasunik ez eduki. Honez gain, robotaren generoa, hau da, gizon edo emakumea, hautatzeko aukera izango du bakoitzaren eskaeraren eta gustuen arabera.

Baita ere, lana asko errazteko modu paregabea da, pertsona bat kontratatu ordez, robotak haren lana izan dezake. Gainera, gizaki bat ez denez, ez da gaixo jartzen edota ez ditu oporrak hartzen, beraz, abantaila bat da familiarentzat. Kargatzeko, modu erraza dauka, robotak berak bi bateria ditu eta berak bakarrik aldatzen ditu, gastatu ahala, entxufeari lotuta egon beharrik gabe.

Robotak, diseinu moderno eta berezia du, 90zm neurtzen ditu altueran eta 45zm zabaleran. Robotaren kanpoko kolorea beltza izango da eta bere begiak urdinak izango dira. Eskuinean, gure enpresaren logoa izango du ipinita zuri kolorean. Azkenik, gurpilak izango ditu alde batetik bestera mugitu ahal izateko.

Gutxi gorabeherako prezioa, 300-350€ izango dira, eta ordaintzeko aukerarik ez badute, dirulaguntza bat lortzeko aukera izango dute.

Gure asmakizuna, Alzheimerra duten pertsonentzako zuzendua dago gehienbat, nahiz eta antzeko gaixotasun eta arazoak dituzten pertsonentzako ere eskuragarri egon. Lehen esan bezala, prezio nahiko lorgarrian egongo da nahi adina pertsonak eskuragarri eduki ahal izateko. Beste enpresa edo zerbitzu batzuek, gurekin harremanetan jarri eta gure produktua eskaini nahi badute, erosleak bertan erosteko aukera izango du, baina, ondoren, gurekin kontaktuan jarri eta dena azaltzeko deialdi bat egingo diogu. Gure produktua eskuratzeko beste enpresa edo zerbitzuen adibideak izan daitezke, Tedcas edo Afaraba.

Aurretik aipatu bezala, benetan beharra duten eta eskuratu ezin duten pertsonen diru laguntzaz bat edukitzeko aukera izango dute, hauek, beraien aurrekontua eskatutakoa baino baxuagoa dela erakutsi behar digute eta hala bada, gure produktuaren prezioa 100€-tara jaitsiko litzateke.

Azkenik, gure ideien erabilgarritasun erraza azpimarratzen dugu, ez da inongo informatika jakintzarik behar nola erabiltzen den jakiteko, nahiz eta inongo arazorik balego, gurekin kontaktuan jarri eta laguntzeko prest egongo ginatekeen.